

Eskubide berriak autonomoentzako

Berrogei urtez lan arloko legeria beraren menpe egon ostean, Espainiako estatuko langile autonomoen kolektiboak eskubide eta betebeharrak berriak baliatu ahal izango ditu.

DANIEL UDALAITZ

Argazkiak: Maddi Soroa



ESPAINIAKO ESTATUAN hiru milioi baino gehiago dira langile autonomoak, Hego Euskal Herrian dozenaka mila pertsona, eta horiek laster izango dute duela hiru hilabete Espainiako Diputatuen Kongresuan itundutako Langile Autonomoaren Estatutu berria baliatzeko aukera. Estatutuak kolektibo horren eskubideen hobekuntza ekarriko du, bai eta zenbait betebeharrak ere. Lan arriskuen prebentzioa arautzea, langilearentzako berme ekonomikoa, menpeko autonomoaren lanbide erregimena, 30 urtetik beherako seme-alabak kontratatatzeko aukera, edota Lan Autonomoaren Kontseiluaren sorrera dira, besteak beste, Langile Autonomoaren Estatutuaren lege berriaren edukiak. Lortutako hobekuntzen artean ondokoak aipa ditzakegu: opor ordainduak, amatasun baimena, langabezia eskubidea eta abar.

Estatutu berri horrek berrogei urtez inolako aldaketarik gabe indarrean izan den kolektiboaren lan erregulazioa ordezkatuko du. Horrela, Espainiako administrazioaren arabera, “babesgabetasun egoerari amaiera” emango zaio eta aldi berean “berdintasun eskubidea aintzatetsiko da”.

Hala ere, langile autonomoekin lotutako elkarte eta sindikatu guztiak ez datoz bat arautegi berriarekin. Aurrerapenak badaudela aitortzen badute ere, zenbait gabezia salatu dute. Horrela bada, menpeko autonomoen arauketa era positiboan baloratu arren, autonomoen langabezia baldintzak hobetu behar direla salatu dute. Legearen gabezien artean azpimarratu dute autonomoen negozioetan senitarteko zuzenak kontratatzea baimentzen bada ere, horiei ez zaiela langabezia laguntzarako esku-

bidea aitortzen. Halaber, menpekotasun ekonomikoa duten autonomoen eskubideak “urriak” direla kritikatu dute, bai eta “lan merkatuan lan baldintzak gutxitzeko presioa egiteko” erabil daitezkeela ere.

Menpeko autonomoak

Autonomoen diru sarreraren %75a gutxienez, enpresa bakar baten menpe dagoenean, egoera horrek araudi berezia izango du. Estatutuak, alde batetik, 300.000 pertsona inguruko kolektibo horren baldintzak hobetzen ditu, baina bestetik, nahiko eztabaidagarria den egoera bat legeztatzen du, zenbaitetan besteren konturako langilea ordezkatzen duena. Langile autonomo horiek, gutxienez diru sarreraren %75 ematen dion enpresarekin kontratu bat sinatuko dute, eta enpresaren kontura 18 laneguneko oporraldia

izateko eskubidea izango dute. Lege testuak asteko atsedetak, jai egunak eta gehienezko lanaldia arautuko ditu.

Gainera, profesional horiek gaixotasunen eta lan istripuen estaldurarako eskubidea izan beharko dute. Prestazio horiek hautazkoak ziren orain arte autonomoentzat, izan ere, kotizazio handiagoa eskatzen zuten. Aldi baterako ezintasunagatik emandako prestazioa (gaixotasunak) orain arte hautazkoa bazen ere, derrigorrezkoa izango da. Ezbehar tasa altua duten lanbideetan lan istripuei dagokien kotizazioari ere aurre egin beharko zaio. Baina aurrez, Lan Ministerioak jarduera horiek zein diren zehaztu beharko du.

Amatasuna eta haurdunaldia

Seme-alabak kontratatu ahal izatea sektorearen eskakizun historikoetako da. Orain arte, autonomoek ezin zituzten bere seme-alabak kontratatu, eta seme-alaba horiek ere autonomoetan alta hartu behar zuten. Neurri horren helburua iruzurra ekiditea zen. Orain, Estatutu berriarekin hogeita hamar urtetik beherako seme-alabek familia jarduera horretan lan egiteko aukera izango dute, gurasoen etxean bizi badira ere. Hala ere, ez dute langabezia eskubiderik izango, seme-alaba bati alta emateagatik gerta litekeen prestazio erosketa eragozteko. Eskubide horretatik kanpo geratzen dira ezkontideak, autonomoetan alta hartu beharko baitute.

Amatasunak eta haurdunaldiak hobekuntzak ditu. Autonomoek jarduera eten ahal izango dute ondoko egoeretan: amatasuna, aitasuna, edoskitzaroa eta haurdunaldian zehar

Bakarrik bizi diren pentsiodunentzako prestazio hobeak

Bakarrik bizi diren pentsiodunek eta beraz, etxea mantentzeko prestazio bakarra dutenek, gehiago kobratuko dute datorren urtetik aurrera. Espainian, neurri horrek hiru milioi pertsonari eragingo dio. Lege berri horrek erretiroan dauden, ezintasun iraunkorra duten edo alarguntza pentsioa jasotzen duten zergapeko pentsiodunei eragingo die. Kolektibo garrantzitsu horrek Gizarte Segurantzatik jasotzen dituen osagarriak hazi egingo dira, jasotako prestaziotik gutxieneko maila bat izango dutela bermatzeko.

CIUK aurkeztutako eta PSOErekin

adostutako zuzenketa baten ondorio da hori, eta horrekin Gobernuak pentsio baxuenak igotzeko konpromisoa hartu du. Testuak ez du zehazten hobekuntza horren zenbatekoa. Bestalde, talde biek adostu dute apaizgoa utzi dutenen egoera hobetzea, betiere, apaizgoa utzi zuten garaian Eliza katolikoak haiengatik kotizatzeke betebeharrak ez bazuen. Garai hartan araua ez zegoen indarrean eta beraz, apaizgoan aritu ziren aldia ez da kotizatu gisa kontuan hartzen. Gizarte Segurantzak bere gain hartuko du kotizatu gabeko aldi hori.

arriskuak direnean. Dagozkien prestazioak jasoko dituzte, eta horrek kotizazio altuagoa eskatuko du, baina hori oraindik arautu gabe dago.

Langabezia eta hobariak

Estatutu berri honekin langile autonomoek langabezi laguntza eskuratzeko eskubidea izango dute lehenengoz. Estatutuak ez du xehetasunik ezartzen, baina sistemari egindako ekarpena handituko duela aurreikusten da. Hogeita hamar urtera arteko gazteen —emakumeak hogeita hamabost urtera arte— Gizarte Segurantzako kotizazioak %30eko diru laguntza jasoko du. Orain arte, diru laguntza %25ekoa zen.

Azkenik, Estatutuak Kontseilu Autonomoaren eraketa ezartzen du, organo aholku emailea, alegia. Kontseilu hori elkarte adierazgarrienek

eta estatuko zein autonomia erkidegoetako administrazioek osatuko dute.

Kolektibo oso heterogeneoa

Langile autonomoen kolektiboa barreiatua eta heterogeneoa da. Gizarte Segurantzako erregimen berezian hiru milioi autonomo baino gehiagok kotizatzen du eta kolektibo horretako kideen %94ak ez dauka bere konturako langilerik edota langile bat edo bi. Gainera, langile autonomoen bostena bere senitartekoen laguntzaz baliatzen da negozioa aurrera ateratzeko. Menpeko autonomoak jadanik kolektiboaren %10 dira. Hain zuzen, figura horrek azken urteetan gora egin du, eta horrek ekar zitzakeen neurrigabekeria nabarmenenak ekiditeko asmoz sortu da arautegi berria. ■



anduri landetxea

Ubera Auzoa 13

20570 Bergara.

Tel.: 943 777 050 / 635 727 666

e-posta: andurilandetxea@yahoo.es